

Beldurrezko eta Fantsiazko Zinemaldiaren euskararen erabileraren neurketa



Donostian, 2002an

0. Sarrera

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarte, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaldiaren hizkuntza erabileraren neurketa egin du aurtengo edizioan lehen aldiz. Orain arte, Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan egin ohi izan dugu: Aste Nagusia, Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia.

Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaldian antolatzen diren ihardueratan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaldiaren euskararen presentzia normalizatzea.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea egunerokotasunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Euskara hizkuntza ofiziala da eta merezi duen tokia eman behar zaio.

1. Ahozkoa

1.1. Prentsaurreak

la denetan gaztelera izan da nagusi, azken egunetako bitan euskaraz egin zen. “Santa Sangre” pelikularen aurkezpenean Rebordinosek interbentzio txiki bat egin zuen euskaraz.

Inaugurazio ekitaldia elebietan egin zuen Ane Seguradok. Itxiera ekitaldia, berriz, gaztelera izan zen.

1.2. Aurkezpenak

Filmeek aurkezpenak izan dituztenean, orohar gaztelera izan direla esan daiteke. Aurkezleak Les Louviersekoak ziren.

1.3. Pelikulak

Azpititulu gehienak gaztelera izan ziren, hainbatetan ingelesez ere ageri ziren.

Aurten, 75 pelikuletatik, euskaraz azpititulatutako pelikulak zortzi izan dira. Filme hauek mutuak izan ziren, pelikula onak izan eta arrakasta handia izan zuten, izugarritzko erantzuna izan zuten egunero beteta egon baizen aretoa.

Umeentzako bi pelikula euskaraz eskaini ziren, “Olentzero gabonetako ipuina” eta “Gorputz udalosteak”. Pelikula hauek Kutxaren babesak jaso dute.

2. Idatzizko materiala

Orohar idatzizko materiala elebietan azaltzen dela esan daiteke. Dena den, jaso dugun idatzizko materialeak banaka aztertuko dugu:

2.1. Programazioa

Programazioa azaltzen den eskuorrian, orohar dena elebietan, hau da, gaztelera eta euskaraz idatzita dagoela esan daiteke. Filmeen izenburua, pelikula eskaini den hizkuntza azaltzen da.

Saio berezia izan denean, berriz, soilik gaztelera azaltzen da: “Inauguración”, “Clausura”, “Sesión especial”... Gainontzeko ohar eta informazio guztia, elebietan azaltzen da, euskaraz eta gaztelera (abonua eta sarreraren salmenta eta gainontzeko zehaztasun guztiak).

Programazio eskuorria babestuz bost etxeen iragarkiak daude: Altxerri bar, Iguana bar, Calle 13, El Bule eta Kutxa. Lehenengo hirurak leloa dute eta gaztelera hutsez daude. Laugarrena ez du leloa, baina azaltzen den informazioa (helbidea) gaztelera soilik azaltzen da. Eta bostgarrena, ez dauka hizkuntzarik.

2.2. Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XIII. Astea. Euskaraz.

Zortzi orriko liburuxka da eta guztia euskara hutsez azaltzen da. Liburuxka honetan euskaraz ikusi ahal izango diren zortzi pelikulen berri azaltzen da.

2.3. Bestelako argitalpenak

2.3.1. Gonbidapenak

Inaugurazio ekitaldiko gonbidapena hiru hizkuntzetan ageri da, lehenik euskaraz, ondoren gaztelaraz eta azkenik ingelesez.

Amaiera ekitaldiko gonbidapena ere hirueletan azaltzen da.

2.3.2. Postalak

Erakusketak iragartzen dituzten txartelak postalak deitu ditugu.

- “Somnium summum”, “No profanar el sueño de los vivos” eta “Baelsberg: Ciudad de la Ufa”. Hiru hauek elebietan azaltzen dira, euskarari nolabaiteko lehenetasuna emanaz.
- “Desde el lado oscuro” txartela elebietan azaltzen den arren, gaztelara hutsezko esaldi bat ere badu.

2.4. Faxak

Irutxuloko erredakzioan jaso ditugun fax gehienak elebietan jaso dira.

2.5. Prentsa dossierra

* Kazetariei zuzenduriko gutuna euskaraz eta gaztelaraz idatzita dago.

* Prentsaurreen zerrenda ere bi hizkuntzetan ageri da eta lehenik euskaraz azaltzen da eta ondoren gaztelaraz.

* Inaugurazio egunean proiektatu ziren filmeen txostenei dagokionez, “Doctor Sleep”en sinopsi laburtua euskaraz lehenik eta ondoren gaztelaraz ageri da, ondoren, fitxa teknikoa, aktoreen zerrenda, sinopsi zabalagoa... ingelesez idatzita daude. “Mácula”ri dagokionez, sinopsia bi hizkuntzetan ageri da, euskaraz eta gaztelaraz, (aipatutako ordenean) eta aktoreen zerrenda eta fitxa tekniko osoa gaztelaraz.

2.6. WEB orria

Interneteko ataria du Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Asteak. www.donostiakultura/terror klikatu eta hiru hizkuntzetan egiteko aukera ematen da, euskara, gaztelara eta ingelesa, aipatutako ordenean.

3. Erakusketak

3.1.Udaletxe azpiko erakusketa

Argazkien erakusketa zen, hala ere, Canal + ek entzuteko kaskoak jarri zituen eta gazteleraz bakarrik entzun zitekeen.

3.2.Liburutegi zaharrean

Pedro Usabiagaren argazki erakusketan elebitasuna mantendu zen.

4. Ondorioak eta proposamenak

Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldiaren euskararen erabilera areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldiaren euskararen presentzia normalizatzea. Horretarako ahozko eta idatzizko materiala jaso dugu eta aztertu egin dugu.

Idatzizko materialari dagokionez, oro har elebitasunari heltzen zaiola esan daiteke eta gainera erabiltzen den euskara txukuna da. Beraz, zoriontzekoa da idatzizko materialean egiten den ahalegina eta BAGERAK antolatzaileak animatu nahi ditu horrela lan egiten jarrai dezaten eta bide batez, izandako hutsuneak hobetzera.

Ahozko hizkuntzari dagokionez, lan handia dago egiteke. Batetik, aurten Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldian 75 pelikula izan dira eta horietatik 8 euskaraz azpititulatuak izan dira eta haurrentzako beste bi euskaraz eskaini ziren. Beraz, oraindik alde handia dago. Hala ere, azpimarratzekoa da euskaraz azpititulatutako filmeek arrakasta handia izan zutela.

Filmeen aurretik dauden aurkezpenei dagokienez, berriz, ikusitako aurkezpen guztietan ez da ia euskara erabili. Hori dela eta, hurrengo edizioari begira, aurkezpenetan euskara kontuan hartzea proposatzen du BAGERAK.

Azkenik, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldiaren prentsaurrekoetan euskararen erabilera oso urria izan da. Beraz, horietan ere euskara erabili eta erabiltzeko aukera eskaintzea proposatzen du BAGERAK.



**Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea**

Pedro Egaña 2- 1. Esk.
20006 Donostia
943 467181
bagera@bagera.net